Bergarako Udala

San Joxepe Elkartea

Bergaran, Bi mila eta hemeretziko martxoaren batean.

**BILDURIK**

ALDE BATETIK, Maria Elena Lete Garcia andrea, Bergarako Udaleko Alkate-Lehendakaria, Udalaren ordezkari den aldetik.

BESTE ALDE BATETIK, Jose Ramon Eguren Diez, NAN zk.a                duena, San Joxepe Jubilatuen eta Pentsionisten Elkartearen presidentea, elkartearen ordezkari den aldetik.

Bi aldeek elkar legez behartzeko ahalmena aitortu diote elkarri eta, aurrekari gisa, honako hau

**AZALDU DUTE**

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiak Bergarako Udalari Boni Laskurain 9an dagoen Zentro Soziālaren zati bat erabiltzeko lagapena egina dio zerbitzu sozialen inguruko jarduerak garatzeko (honekin batera doa lagatako tokiaren planoa).

2. Bai Udalaren iritziz bai San Joxepe jubilatuen eta pentsionisten elkartearen (hemendik aurrera, San Joxepe) iritziz, toki hori orain arte bezala hirugarren adinekoendako jarduerak garatzeko izatea komeni da, eta bi aldeek adostu dute toki hau San Joxepe elkarteak kudeatuko duela jarduera horiek aurrera eramateko.

3.- Bi aldeek egoki irizten dute alde bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak agiri batean jasotzea.

Beraz, bi aldeek ondorengo estipulazioak dituen kontratua adosten dute:

**ESTIPULAZIOAK**

<u>Lehena</u>: Bergarako Udalak doan lagatzen dio San Joxepe elkarteari lehen aurrekarian azaldutako Zentro Soziala erabiltzen, eta baita bertan dagoen materiala (I. eranskinean jasotakoa) erabiltzen

ere, hirugarren adinekoendako topagune edo bilgune izateko eta horiendako zerbitzuak eman eta/edo jarduerak antolatzeko; eta elkarteak onartu egiten du.

Horren ondorioz, San Joxepe elkarteak, Zentro Soziala topagune eta bilgune izateko konpromisoaz aparte, honako konpromisoak ere bere gain hartzen ditu:

- Hirugarren adinekoendako honelako jarduerak antolatzea: aisialdikoak edo dibertimenduzkoak (kultura, kirol eta abarreko arloetakoak).
- Hirugarren adinekoendako honelako jarduerak antolatzea: sozio-komunitarioak eta gizarte-onurakoak.
- Udalak hirugarren adinekoendako antola ditzakeen programak garatzen laguntzea. Laguntza hori unean uneko akordiotan zehaztuko da eta Udalak izendatuko duen Gizarte Zerbitzuetako arduradunak gainbegiratuko du.
- Udalak hirugarren adinekoendako egin nahiko lituzkeen jardueretarako laguntza teknikoa ematea. Laguntza hori ere unean uneko akordiotan zehaztuko da.
- Hirugarren adinekoek eskatzen dituzten zerbitzu zehatz batzuk ematea.

Hala ere, beste talde eta pertsona batzuk lokalak erabili ahal izango dituzte kultura- eta gizarte-jarduerak aurrera eramateko, elkartearen eta Udalaren berariazko baimena lortu ondoren.

<u>Bigarrena</u>: San Joxepe elkarteak, aurreko puntuan jasotako helburuaz gain, helburu hauetarako ere erabiliko du zentroa:

- Erabiltzeko lagatzen den eraikina kontratu honetan jasotako baldintzen arabera erabiliko da, eta baita, horrela badagokio, alde biek adostu ditzaketen arau partikularren arabera ere; arau partikular horiek ezarriz gero, kontratu honi gehituko zaizkio. Jarduerak garatzeko, unean uneko behar diren lizentzia eta baimen guztiak lortuko dira.
- Liburuxka, kartel, programa eta horrelako euskarrietan Bergarako Udalaren laguntza adieraziko da.
- Bergarako hirugarren adineko guztiei emango zaie aukera, elkarteko bazkide izanda ala izan gabe, instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeko eta antolatutako jardueretan parte hartzeko. Elkarteak bazkideei abantailak eman ahal izango dizkie eta instalazioak erabiltzeko baldintzak ezarri ahal izango ditu. Baina abantaila eta baldintza horiek (zentro sozialari badagozkio betiere) Udalari jakinarazi beharko dizkio, bidezkoak badira

Udalak onar ditzan eta, horrela, bazkide ez direnek instalazioak erabiltzeko duten eskubidea neurriz kanpo murriztu ez dadin.

- Aurreko idatz zatian ezarritakoa horrela izanda ere, elkarteak antolatutako jardueretakoren batean plaza mugatuak baldin badira, San Joxepe elkarteko bazkideek lehentasuna izango dute.
- Bergarako hirugarren adineko guztiek izango dute aukera elkarteko bazkide izateko estatutuek ezarritako baldintzetan. Estatutuok ezingo dute jaso arraza, sexu edo erlijiogatik diskriminazioa dakarren edo eragin dezakeen inongo xedapenik.
- Lagatako eraikina eta materiala egoera onean mantenduko da, horiek garbitzeko eta mantentzeko beharrezko baliabideak jarriz.

  Elkarteak konponketa-obra txikiak egin ahal izango ditu baldin eta Udalari aurrez jakinarazten badio lanak egin behar dituela. Horietatik kanpo daude zentro sozialaren ezaugarri estetikoak, funtzionalak edo egiturazkoak aldatzea dakartenak.
- Zentroaren funtzionamendurako behar diren hornidura guztiak kontratatzea, hala nola, ura, argindarra, gasa, etab., eta horien kostua bere gain hartzea. Eraikinari dagozkion kontribuzio eta zergak Udalaren kontura joango dira.
- Instalazioak, abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a salbu, urteko beste egun guztietan zabalduko dira honelako ordutegian:
  - Astelehenetik larunbatera, gutxienez 9:30etik 21:00etara.
  - Igande eta jai-egunetan, gutxienez 11:00etatik 21:00etara.
  - Abenduaren 24 eta 31etan, gutxienez 9:30etatik 14:30etara.

  Instalazioak zabaltzeko egunak eta ordutegia alde biek adostuta aldatu ahal izango dira.
- Udalak San Joxepe elkarteak kudeatzen dituen instalazioak erabili ahal izango ditu hirugarren adinekoendako jardueretarako. Udalak programazio hori aurrez lehenbailehen jakinarazi beharko dio San Joxepe elkarteari.
- Unean uneko indarrean dagoen zergei, lanari eta Gizarte Segurantzari buruzko araudia bete beharko du.
- Erantzukizun zibileko poliza bat kontratatu beharko dute beren jardueren edo ematen dituzten zerbitzuen ondorioz pertsonei edo ondasunei eragin dakizkiekeen kalteak babesteko. Gutxienezko kapital aseguratua 300.000 eurokoa izango da.
- Beste hirugarren batzuei eraikin osoa edo zati batean lagatzea nahi badu, Udalaren berariazko baimena lortu beharko du. Aurrez Udalak baimendu beharreko lagapen hori

zentroaren erabiltzaileei zerbitzuak emateko helburuaz besterik ezingo da egin, eta lagapen-hartzaileek erantzukizun zibileko poliza bat kontratatu beharko dute.

- Lagapena amaitutakoan, lokala eta I. eranskinean jasotako ekipamendua gaur egun duten erabilerarako eta kontserbazioko egoera berdinean bueltatu beharko dituzte.
- Taberna-zerbitzua II. eranskinean zehaztutako baldintzetan ematen dela bermatu beharko dute.
- Euskararen presentzia bermatu beharko dute:
  * Ahoz, elkarteak antolatzen dituen ekitaldi, ikastaro, bilera eta abarretan, eta baita elkarteak eskaintzen dituen zerbitzu profesionaletan ere. Horretarako, ekintza horietarako kontratatzen diren hizlari, irakasle eta profesionalak euskaldunak izatea hobetsiko da.
  * Idatziz, ekintzak iragartzeko sortzen diren esku-programa, iragarki, kartel eta abarretan. Kasu hauetan ele bietako testuetan euskarari lehentasuna emango zaio.
  * Elkarteak haur eta gazteentzat antolatzen dituen jarduerak euskaraz izango dira.
- Generoarekiko betebeharra
  * Hitzarmen honek nahitaez bete behar ditu Bergarako Udalak generoarekiko onartutako irizpideak.
  * Honela, Gizarte etxean burutzen diren ekintza guztietan genero ikuspuntua momenturo presente egon beharko da.
  * Erabiltzen den dokumentazioa guztian (Iragarkiak, eskutitzak, memoria, e.a....) hizkera ez sexistako irizpideak aplikatuko dira.
  * Era berean, San Joxepe elkarteak Gizarte zentroan egindako ekintzen memoriak azaltzerakoan pertsona erabiltzaile edo onuradunen sexuaren arabera banakatutako datu eta adierazleak erabiliko dira.

- Kontratu honetan ezarritakoa betetzen duela Udalaren aurrean egiaztatu beharko du Udalak eskatzen dionean.

Hirugarrena: San Joxepe elkarteak beste zerbitzu batzuk ere eman ahal izango dizkie elkarteko bazkideei edo, orokorrean, herriko hirugarren adinekoei, baldin eta horretarako lekurik badago eta Udalaren berariazko eta idatzizko baimena badu.

<u>Laugarrena</u>: Elkarteak zerbitzu ezberdinak emateko adostu ditzakeen kontratuek ezingo dute iraun agiri honetan zehazten den erabilera-lagapenaren iraupen-aldia baino gehiago.

<u>Bosgarrena</u>: Udalak honako konpromisoak hartzen ditu bere gain: zentroko kanpoaldeko garbiketa- eta lorategi-lanak egitea eta, ekitaldi bakoitzerako onartuko diren finantzatzeko irizpideen arabera, honako gastuak ordaintzeko dirulaguntza ematea: zerbitzu ezberdinetako hornidura-gastuak (argindarra, gasa...) eta lagatako eraikina eta instalazioak mantentzeko eta garbitzeko gastuak (kenduta tabernaren, bertako tresneriaren eta erantsitako komunen garbiketa).

Aurreko puntuan ezarritakoa horrela izanda ere, Udalak diru-laguntzarik ez ematea erabaki ahal izango du neurriz kanpoko edo kontrolik gabeko gastu edo kontsumoak badira; horregatik, elkarteak gastuak kontrolatzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu.

Udalak beste diru-laguntza batzuk ere eman ahal izango ditu aparteko inbertsioak edo konponketak egiteko. Horretarako eskaera gastua egin baino lehen aurkeztu beharko da.

Diru-laguntza horiek bateragarriak dira Udalak deialdi ezberdinetan onar ditzakeen beste diru-laguntzekin.

<u>Seigarrena</u>: Udalaren diru-laguntza ordaintzeko modua hauxe izango da:

Kontura ordainduko da urteko lehen hiruhilekoaren gastuei aurre egiteko moduko iritzitako diru-laguntza bat eta, horri dagokion balantze ekonomikoa aurkeztu ondoren, hurrengo hiruhilekoari dagokion diru-laguntza zatia ordainduko da, eta horrela egingo da urtearen lau hiruhilekoetan zehar. Urte bukaeran, diru-laguntza erregularizatuko da eta, horren arabera, Udalak emandako dirua ezin izango da izan elkarteak egindako gastuak baino gehiago.

Urte bakoitzeko urtarrilean aurrekontu berria oraindik indarrean ez badago, aurreko urteko diru-laguntza bera ordaintzen jarraituko da kontura.

<u>Zazpigarrena</u>: Kontratu honetatik eratorritako betebeharrak, osotasunean zein zati batean, elkarteak beteko ez balitu, kontratua desegin ahal izango da eta lagatako instalazioak bueltatu

behar izango ditu inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, eta jaso duen diru guztia edo zati bat bueltatu edo ordainketa-kopuruak ordaindu beharko ditu, eta baita indarrean dagoen arauditik eratorritako beste edozein ordainketa egin ere. Bueltatu beharreko kopurua izandako ez-betetzearen larritasunaren araberakoa izango da, eta Diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legean jasotzen den moduan exijituko da.

Zortzigarrena: Udalak ahalmena izango du ondasunak laga ziren helburuetarako erabiltzen direla kontrolatzeko, baita instalazioen egoera eta zerbitzuak eta jarduerak nola ematen diren kontrolatzeko ere, eta horren arabera, beharrezko irizten dituen neurriak hartzeko.

Udalak ez du inongo erantzukizunik izango elkartearen, elkartekideen edo zerbitzu-emaileen jabetzako materialak kaltetu, lapurtu edo hondatzen badira.
San Joxepe elkarteak, bestetik, ez du ezta inongo erantzukizunik hartuko ere bere gain, ez bada erantzukizun zibilaren ondoriozkoa, eta horretarako kontratatuko du bigarren klausulan jasotako poliza.

Bederatzigarrena: Erabilera-lagapen honen iraupena urtebetekoa izango da, hitzarmen hau sinatzen denetik kontatzen hasita, eta isilbidez urtez urte luzatu ahal izango da gehienez ere bost urte bete arte. Bestela, alderen batek hitzarmena amaitzeko asmoa duela azaldu beharko du hasierako urtea edo luzapen-urte bat bukatu baino gutxienez hiru hilabete aurretik.

Lagatako ondasunen inbentarioa behar beste alditan gaurkotuko da, alde biek adostuz gero, kontratuak indarrean dirauen bitartean

Hamargarrena: Hitzarmen honek izaera juridiko-administratiboa du eta honako araubidea jarraituko du: agiri honetan ezarritakoa eta, horretan xedatzen ez denerako, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legea, eta Herri-Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legea, eta aplikagarri diren zuzenbide administratiboko gainontzeko araudiak.
Diru-laguntzei dagokienez, agiri honetan ezartzen ez denerako, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta aplikagarri diren gainontzeko araudiak.

Hamaikagarrena: Eztabaidak erabakitzea: Hitzarmen honen klausulak interpretatu, aplikatu eta burutzerakoan sor daitezkeen zalantza guztiak Udalak argitu eta erabakiko ditu. Horrenbestez,

lankidetza-hitzarmen hau interpretatu eta aplikatzerakoan eta bere ondorioei buruz sor daitezkeen desadostasun eta eztabaiden aurrean, administrazioarekiko auzietako jurisdikzioko aginteak du horiek erabakitzeko eskumena. Hala ere, zalantzak Udalak erabaki baino lehen, ondorengo klausulan aipatzen den jarraipen-batzordeak aztertuko ditu eta adostasun batera iristen saiatuko da.

Hamabigarrena: JARRAIPEN-BATZORDEA

- Lankidetza hau zuzen aplikatu, jarraitu, sustatu eta garatzeko, jarraipen-batzorde bat eratu da Udaleko bi ordezkarik eta San Joxepe elkarteko beste bi ordezkarik osatuta.
- Horietaz gain, eta bere eginkizunak hobeto betetze aldera, Jarraipen-batzordean teknikoak eta espezialistak egon daitezke aholkuak emateko.
- Jarraipen-batzordeak, beste eginkizunen artean, honakoak izango ditu:
    * Hitzarmenean jasotako betebeharrak zehatzago definitzea.
    * Alde biek onartutako lankidetzaren jarraipena egitea.
    * Helburuen betetze-maila ebaluatzea.
    * Hitzarmena eraginkorragoa izateko beharrezko neurriak proposatzea.
    * Hitzarmena sinatu duten aldeen arteko informazioa bideratzea
    * Lankidetzarako beste bide edo formula batzuk aztertzea.
    * Hitzarmen honetatik erator daitezkeen beste guztiak.

- Jarraipen-batzordea gutxienez hiruhilekoan behin bilduko da, eta baita hitzarmen-sinatzaile batek egoki irizten duen guztietan ere, beste aldeari behar besteko aurrerapenez jakinarazi ondoren.

Eta alde biek ados daudela adierazteko kontratu hau sinatu dute, hirukoiztuta, Idazkaria naizen honen aurrean, hasieran adierazitako egunean eta tokian.

Maria Elena Lete Garcia
Bergarako Alkatea

Jose Ramon Eguren Diez
San Joxepe Elkarteko Lehendakaria

Bergarako Udala

San Joxepe Elkartea

## I. ERANSKINA: INBENTARIOA

## ANEXO I: INVENTARIOA

### PLANTA BAJA

**COCINA**

1 COCINA DE GAS NATURAL DE 6 FUEGOS MOD. CG1502BD

1 FREIDORA ELECTRICA FAGOR INDUSTRIAL

1 CALENTADOR MANTENIMIENTO DE COMIDAS CALIENTES

1 LAVA-VAJILLAS

1 MICRO-ONDAS

1 FRIGORIFICO INDUSTRIAL ACERO INOX. MARCA KOSKA

1 FRIGORIFICO LIEBERG

3 UNIDADES DE FREGADERO ACERO INOX.

2 ARMARIOS DE COCINA INDUSTRIALES DE ACERO INOX.

1 EQUIPO DE VAJILLA COMPLETA PARA 60 COMENSALES

3 JUEGOS DE CAZUELA 40 *15 -ALUMINIO- MUY VIEJAS

1 JUEGO DE OLLA A PRESION SIN RECAMBIO

1 JUEGO DE SARTENES -OBSOLETO-

1 BATIDORA INDUSTRIAL -SIN RECAMBIO-

1 EXTRACTOR INDUSTRIAL

1 OFFICE CON CARRO INDUSTRIAL PARA SERVIR COMIDAS

1 EXTINTOR DE 5 KG 34 B DE LA CASA BEBESA

**CAFETERIA**

2 PARAGÜEROS

1 MAQUINA DE HIELOS

2 FREGADEROS DE ACERO INOX.

2 UNIDADES DE BOTELLERO

1 MÁQUINA DE CERVEZA A PRESION

1 LAVA-VAJILLAS

20 MESAS CUADRADAS

1 MESA DOBLE

97 SILLAS DE MADERA

12 SILLAS DE PLASTICO

8 PARAGÜEROS

20 PERCHEROS DE PARED

2 PERCHEROS DE PIE

3 CUADROS

2 TALLAS DE MADERA

1 RELOJ DE PARED

**PLANTA PRIMERA**

16 MESAS

58 SILLAS DE MADERA

21 SILLAS DE PLASTICO

2 PERCHEROS DE PIE

8 PERCHEROS DE PARED

2 PARAGÜEROS

1 CUADRO

1 RELOJ DE PARED

1 TELEVISOR

**SALA POLIVALENTE**

13 MESAS

60 SILLAS DE PLASTICO

4 CUADROS GRANDES

6 CUADROS PEQUEÑOS

1 PIANO

3 ARMARIOS

1 PERCHERO

Bergarako Udala

San Joxepe Elkartea

## SEGUNDA PLANTA

| | |
|---|---|
| 8 | MESAS |
| 29 | SILLAS DE MADERA |
| 8 | SILLAS DE PLASTICO |
| 1 | PERCHERO DE PIE |
| 3 | PERCHEROS DE PARED |
| 2 | PARAGÜEROS |
| 3 | ARMARIOS |
| 1 | TELEVISOR |

## ESCALERA Y HALL

| | |
|---|---|
| 38 | CUADROS |

## II. ERANSKINA: TABERNA-JANLEKUKO ZERBITZUA.

- Taberna-zerbitzua zentroa zabalik dagoen egun guztietan eman beharko da, eta gehienez ere zentroa zabalik dagoen ordutegian. Halaber, egun guztietan derrigorrez eta gutxienez eguerdiko eguneko menu bat eskaini beharko da; menua astegunaren arabera aldatuko da eta hirugarren adinekoen kolektiboak dituen ezaugarrien araberakoa izango da.

- Tabernan jubilatuei eta pentsionistei kobratuko zaizkien gehienezko prezioak Udalak finkatuko ditu. Gehienezko prezioak hauexek ***dira (Ikusi III. Eranskina).***

Prezio horiek Udalak egoki irizten duenean aldatu ahal izango ditu, eta horiek indarrean jartzeko nahikoa izango da San Joxepe elkarteari gutxienez 15 egun natural aurretik jakinaraztearekin. Erabakia Alkatearen dekretuz hartuko da.

- Indarrean dauden araudiak bete beharko ditu bai zergei, lanari edo gizarte-segurantzari buruzkoak, bai osasunari eta ordutegiei buruzkoak; eta beteko ez balira, Udalak ez du izango horregatik inongo erantzukizunik.

- Guztiz debekatuta dago alkoholdun edariak eta tabakoa 18 urtez azpikoei saltzea.

Bergarako Udala

San Joxepe Elkartea

## ANEXO III : PRECIOS MAXIMOS DEL SERVICIO DE BAR-COMEDOR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **BERGARAKO GIZARTE ZENTROA** | | | | **CENTRO SOCIAL DE BERGARA** |
| **PREZIOEN ZERRENDA OROKORRA** | | | | **LISTA DE PRECIOS GENERAL** |
| **TABERNA-JANGELA** | | **Jubilatuak** | **Orokorra** | **BAR - COMEDOR** |
| **2019. URTEA** | | **Jubilados** | **General** | **AÑO 2019** |
| | | | | |
| **ARDOAK** | | | | **V I N O S** |
| TXIKITOA | | 0,40 € | 0,45 € | TXIKITO |
| TXIKITO NAPAR GORRIA | | 0,90 € | 0,90 € | TXIKITO CLARETE NAVARRO |
| BOTILA HANDIA 3/4 | | 1,90 € | 1,90 € | BOTELLA GRANDE 3/4 |
| SAGARDO TXIKITOA | | 0,85 € | 0,85 € | TXIKITO SIDRA |
| RIOJA TXIKITOA | | 0,85 € | 0,90 € | TXIKITO RIOJA |
| MEDRANO TINTOA | | 0,90 € | 0,90 € | TINTO MEDRANO |
| RIOJA 3/4 BOTILA | | 5,00 € | 5,00 € | BOTELLA RIOJA 3/4 |
| KRIANTZA ARDOA ( PUERTA VIEJA) | | 1,20 € | 1,35 € | VINO CRIANZA (PUERTA VIEJA ) |
| KRIANTZA ARDOA ( BAROJA ) | | 1,50 € | 1,50 € | VINO CRIANZA ( BAROJA ) |
| KRIANTZA ARDOA ( MARQUES DEL PUERTO | | 1,50 € | 1,50 € | VINO CRIANZA ( MARQUES DEL PUERTO ) |
| TXIKITOA RUEDA | | 0,85 € | 0,90 € | TXIKITO RUEDA |
| TXIKITO ZURIA RIOJA | | 1,00 € | 1,00 € | TºXIKITO BLANCO RIOJA |
| TXAKOLINA | | 1,50 € | 1,50 € | TXAKOLIN |
| MUZTIO TXIKITOA | | 0,45 € | 0,45 € | TXIKITO MOSTO |
| SAGAR TXIKITOA | | 0,45 € | 0,45 € | TXIKITO MANZANA |
| SAGARDO BOTILA | | 2,55 € | 3,70 € | BOTELLA SIDRA |
| TXANPAINA - CASTEL D'ORDAL | | 5,00 € | 5,50 € | CHAMPAGNE - CASTEL D'ORDAL |
| BOTILA RUEDA | | 4,50 € | 5,00 € | BOTELLA RUEDA |
| KRIANTZA ARDO BOTILA | | 8,00 € | 8,00 € | BOTELLA CRIANZA |
| BOTILA ZURIA RIOJA | | 8,00 € | 8,00 € | BOTELLA BLANCO RIOJA |

Bergarako Udala

San Joxepe Elkartea

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **FRESKAGARRIAK** | | | | | **REFRESCOS** |
| ZURITOA | | 0,95 € | 1,00 € | | ZURITO |
| KAÑA | | 1,45 € | 1,75 € | | CAÑA |
| GARAGARDO ALKOHOL GABEA | | 1,45 € | 1,75 € | | CERVEZA SIN ALCOHOL |
| FRESKAGARRIAK | | 1,45 € | 1,75 € | | REFRESCOS |
| UR BOTILA TXIKIA 1/4 | | 0,75 € | 1,05 € | | AGUA MINERAL PEQUEÑA 1/4 |
| ZUKUAK | | 1,40 € | 1,70 € | | ZUMOS |
| GASEOSA | | 1,15 € | 1,15 € | | GASEOSA |
| UR BOTILA HAUNDIA | | 1,70 € | 2,10 € | | BOTELLA GRANDE AGUA |
| | | | | | |
| **KAFEAK** | | | | | **CAFES** |
| KAFEA | | 1,05 € | 1,20 € | | CAFÉ |
| KAFE EBAKIA | | 1,05 € | 1,20 € | | CAFÉ CORTADO |
| KAFESNEA | | 1,10 € | 1,25 € | | CAFÉ CON LECHE |
| DESKAFEINATUA | | 1,10 € | 1,25 € | | DESCAFEINADO |
| INFUSIOAK | | 0,85 € | 1,05 € | | INFUSIONES |
| BASO ESNEA, HANDIA | | 0,85 € | 0,85 € | | VASO GRANDE LECHE |
| BASO ESNEA, TXIKIA | | 0,60 € | 0,60 € | | VASO PEQUEÑO LECHE |
| TXOKOLATEA | | 1,55 € | 1,70 € | | TAZA DE CHOCOLATE |
| | | | | | |
| **APERITIBOAK** | | | | | **APERITIVOS** |
| VERMOUTHA | | 1,70 € | 2,00 € | | VERMOUTH |
| MARIANITOA | | 1,15 € | 1,60 € | | MARIANITO |
| BITTER ALKOHOL GABEA | | 1,60 € | 2,00 € | | BITTER SIN |
| BITTERRA | | 1,60 € | 2,00 € | | BITTER CON |
| | | | | | |
| **LIKOREAK** | | | | | **LICORES** |
| GINEBRA | | 1,60 € | 1,80 € | | GINEBRA |
| PONTXEA | | 1,55 € | 1,80 € | | PONCHE |
| ANISA, PATXARANA | | 1,55 € | 1,80 € | | ANIS, PATXARAN |
| RONA | | 1,55 € | 1,55 € | | RON |

Bergarako Udala

San Joxepe Elkartea

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | |
| **KONBINATUAK** | | | | | **C O M B I N A D O S** |
| KUBA LIBREA | | 2,95 € | 3,40 € | | CUBA LIBRE |
| GIN TONIKA | | 2,95 € | 3,40 € | | GIN TONIC |
| KARAJILLOA | | 1,60 € | 2,00 € | | CARAJILLO |
| KALIMOTXOA | | 1,70 € | 2,20 € | | KALIMOTXO |
| | | | | | |
| **MENUAK** | | | | | **M E N U S** |
| EGUNEKO MENUA | | 7,75 € | 8,90 € | | MENÚ DEL DÍA |
| KAZOLATXOAK | | 3,70 € | 4,25 € | | CAZUELITAS |
| SALDA | | 1,10 € | 1,25 € | | CALDO |
| KAZOLATXOA MUTURRAK | | 4,00 € | 4,50 € | | CAZUELITAS DE MORROS |
| | | | | | |
| **TXITXIZOTZAK** | | | | | **B A N D E R I L L A S** |
| PATATA-TORTILLA | | 1,25 € | 1,40 € | | TORTILLA DE PATATAS |
| KROKETAK | | 1,50 € | 1,60 € | | CROQUETAS |
| TXORIZOA | | 1,25 € | 1,40 € | | CHORIZO |
| ODOLOSTEA | | 1,25 € | 1,40 € | | MORCILLA |
| ARRAINA | | 1,25 € | 1,40 € | | PESCADO |
| GAZTA | | 1,25 € | 1,40 € | | QUESO |
| AZEITUNAK | | 1,25 € | 1,40 € | | ACEITUNAS |
| | | | | | |
| **OTARTEKOAK** | | | | | **B O C A D I L L O S** |
| SOLOMOA | | 2,45 € | 2,90 € | | LOMO |
| BOKATA ERDI | | 1,60 € | 1,70 € | | MEDIO BOKATA |
| URDAIAZPIKOA | | 2,45 € | 2,90 € | | JAMÓN |
| GAZTA | | 2,45 € | 2,90 € | | QUESO |
| TXORIZOA | | 2,45 € | 2,90 € | | CHORIZO |
| TXORIZO-TORTILLA | | 2,45 € | 2,90 € | | TORTILLA CHORIZO |
| GAZTA-TORTILLA | | 2,45 € | 2,90 € | | TORTILLA QUESO |
| URDAIAZPIKO-TORTILLA | | 2,45 € | 2,90 € | | TORTILLA JAMÓN |
| PATATA-TORTILLA | | 2,45 € | 2,90 € | | TORTILLA PATATA |

Bergarako Udala

San Joxepe Elkartea

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| TORTILLA HUTSA | | 2,10 € | 2,75 € | | TORTILLA FRANCESA |
| | | | | | |
| **WHISKYAK** | | | | | **WHISKYS** |
| ESKOZIARRA | | 3,40 € | 3,80 € | | ESCOCES |
| WHISKY ESKOZIARRA, KOPA 1/2 | | 2,10 € | 2,65 € | | 1/2 COPA WHISKY ESCOCES |
| | | | | | |
| **KOÑAKAK** | | | | | **COGNACS** |
| SOBERANO | | 1,60 € | 1,90 € | | SOBERANO |
| INSUPERABLE | | 2,10 € | 2,65 € | | INSUPERABLE |
| CARLOS III, MAGNO, KOPA 1/2 | | 1,45 € | 2,05 € | | 1/2 COPA CARLOS III, MAGNO |
| CARLOS III | | 2,00 € | 2,65 € | | CARLOS III |
| MAGNO | | 2,00 € | 2,65 € | | MAGNO |
| BESTE LIKOREAK KOPA 1/2 | | 1,10 € | 1,55 € | | 1/2 COPA OTROS LICORES |
| | | | | | |
| **OPILAK** | | | | | **BOLLERÍA** |
| BIZKOTXOA | | 1,15 € | 1,25 € | | BIZCOCHO |
| | | | | | |
| **ASKOTARIKOAK** | | | | | **VARIOS** |
| ALMENDRAK, KAKAHUETEAK | | 0,95 € | 0,95 € | | ALMENDRAS, CACAHUETES |
| TARTAK RAZIOA | | 1,40 € | 1,50 € | | RACION DE TARTA |
| EZTIZKO KARAMELUAK | | 1,20 € | 1,20 € | | CARAMELOS DE MIEL |
| MENTAZKO KARAMELUAK | | 1,20 € | 1,20 € | | CARAMELOS DE MENTA |
| IZOTZA | | 1,20 € | 1,20 € | | HELADO |
| PATATA FRIJITUAK | | 1,00 € | 1,00 € | | PATATAS FRITAS |
| KARAMELOAK MENTOL LEGALIZ-a | | 1,50 € | 1,50 € | | CARAMELO MENTOL REGALIZ |
| TXIKLEAK - MARRUBIA ETA MENTA | | 1,00 € | 1,00 € | | CHICLES - FRESA Y MENTA |
| | | | | | |
| Oharra: Zerrenda honetan eskuz jarritako aldaketak ez dira baliagarriak. | | | | | |
| Nota: Las inscripciones realizadas a mano en este listado no son válidas. | | | | | |

Bergarako Udala

San Joxepe Elkartea

En Bergara, a uno de Marzo de dos mil diecinueve.

## REUNIDOS

DE UNA PARTE, Doña Maria Elena Lete Garcia, Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Bergara, y en su representación.

DE LA OTRA, Don Jose Ramon Eguren Diez, con DNI presidente de la Asociación de Jubilados y Pensionistas San Joxepe, en representación de la asociación.

Ambas partes se reconocen capacidad legal para obligarse, y a modo de antecedentes

## EXPONEN

1.- Que la Diputación Foral de Gipuzkoa tiene cedido al Ayuntamiento de Bergara, el uso de parte del Centro Social sito en Boni Laskurain nº 9, para la realización de actividades relacionadas con los servicios sociales (se adjunta plano del espacio cedido)

2.- Que tanto el Ayuntamiento como la asociación de jubilados y pensionistas San Joxepe, en adelante San Joxepe, entienden conveniente que ese espacio se destine como hasta la fecha a actividades para la tercera edad, y que ambas partes han acordado que sea la asociación San Joxepe quien gestione ese espacio para llevar adelante dichas actividades.

3.- Que ambas partes entienden conveniente recoger en un documento los derechos y obligaciones de las partes intervinientes.

Por lo que ambas partes intervinientes convienen el contrato que se contiene en las siguientes

## ESTIPULACIONES

<u>Primera</u>: El Ayuntamiento de Bergara cede gratuitamente a la asociación San Joxepe el uso del Centro Social descrito en el antecedente primero y del material existente en el mismo

(recogido en el anexo I) para destinarlo a lugar de encuentro, reunión, así como a la prestación de servicios y/o la organización de actividades para el colectivo de las personas de la tercera edad y la Asociación acepta.
Ello implica que la asociación San Joxepe se compromete además de destinar el Centro Social a lugar de encuentro y reunión, a lo siguiente:

- Organizar actividades de ocio y tiempo libre o recreativas (culturales, deportivas, etc...) para la tercera edad.
- Organizar actividades socio-comunitarias y de beneficio social para la tercera edad.
- Colaborar con el Ayuntamiento en el desarrollo de aquellos programas que organice dirigidos al colectivo de la tercera edad. Tal colaboración se concretará en los acuerdos oportunos, y se efectuará bajo la supervisión del responsable de los Servicios Sociales que designe el Ayuntamiento.
- Asistir técnicamente a las actividades que para la tercera edad pretenda llevar a cabo el Ayuntamiento. Tal asistencia técnica se concretará en los acuerdos oportunos.
- Prestar determinados servicios que demanden las personas de la tercera edad.

No obstante, los locales podrán ser utilizados por otros grupos y personas para la realización de actividades culturales y sociales, previa autorización expresa de la Asociación y del Ayuntamiento.

<u>Segunda</u>: La asociación San Joxepe se obliga además de a destinar el centro a la finalidad recogida en el punto anterior a lo siguiente:

- Utilizar el inmueble cuyo uso se cede en los términos recogidos en este contrato y en las normas particulares que de forma conjunta se establezcan en su caso, y que se anexarán a este contrato. Obtener cuantas licencias y autorizaciones resulten, en su caso, precisas para el desarrollo de sus actividades.
- Constatar en los folletos, carteles, programas y soportes análogos la colaboración del Ayuntamiento de Bergara.
- Permitir a todas las personas de la tercera edad de Bergara, sean o no socias de la asociación el disfrute de las instalaciones y servicios, así como la participación en las

actividades que organicen. La asociación estará facultada para el otorgamiento de ventajas a sus asociados y establecer las condiciones de utilización de dichas instalaciones. Dichas ventajas y condiciones (siempre que se refieran al centro social) deberán de ser comunicadas al Ayuntamiento para que lo apruebe si procede, al objeto de evitar que las mismas constituyan una restricción desproporcionada del derecho de las personas no asociadas a disfrutar de aquellas instalaciones.

No obstante lo establecido en el párrafo anterior, cuando exista limitación de plazas en alguna de las actividades que organice la asociación, tendrán prioridad los socios de San Joxepe Elkartea.

- Permitir a todas las persona de la tercera edad de Bergara el ingreso en la asociación en los términos que en los estatutos se establezcan. Esos estatutos no podrán contener disposición alguna que implique o provoque discriminación por razón de raza, sexo o religión.
- Mantener el edificio y material cedido en buen estado, poniendo los medios precisos para la limpieza y mantenimiento adecuado de los mismos.

  La asociación podrá realizar pequeñas obras de reparación siempre que comunique previamente al Ayuntamiento la realización de las mismas. Se excluyen de tal concepto la modificación de las características estéticas, funcionales o estructurales del centro social.
- Contratar todos los suministros necesarios para un correcto funcionamiento del mismo, como agua, electricidad, gas, etc, y asumir el costo de los mismos. Las contribuciones e impuestos que gravan el edificio, serán de cuenta del Ayuntamiento.
- Mantener abiertas las instalaciones todos los días del año a excepción de 25 de diciembre y 1 de enero en el siguiente horario:
  - De lunes a sábado, al menos de 9:30 a 21:00 horas.
  - Domingos y festivos, al menos de 11:00 a 21:00 horas.
  - El 24 y 31 de diciembre, al menos de 9:30 a 14:30.

El horario y los días de apertura de las instalaciones podrán ser modificados por mutuo acuerdo de las partes.

- Permitir al Ayuntamiento la utilización de las instalaciones gestionadas por la asociación San Joxepe en aquellas actividades dirigidas al colectivo de personas de la

tercera edad. El Ayuntamiento deberá comunicar dicha programación a la asociación San Joxepe con la mayor antelación posible.

- Cumplir, en su caso, la normativa fiscal, laboral y de Seguridad Social en cada momento vigente.
- Contratar una póliza de responsabilidad civil que cubra los daños a personas o bienes como consecuencia de sus actividades o servicios que presten. El capital mínimo asegurado será 300.000 euros.
- Obtener la autorización expresa del Ayuntamiento para la cesión del uso total o parcial del inmueble a favor de terceros. Tal cesión previa autorización del Ayuntamiento sólo podrá realizarse con la finalidad de prestar servicios a las personas usuarias del centro y las personas cesionarias deberán de contratar una póliza de responsabilidad civil.
- Terminada la cesión, devolver el local y el equipamiento que figura en el anexo nº I en similares condiciones de uso y conservación a las actuales.
- Garantizar la prestación del servicio de bar en las condiciones recogidas en el anexo nº II.
- Garantizar la presencia del euskera:
  - A nivel hablado, en los actos, cursos, reuniones... organizados por la asociación, así como en los servicios profesionales que ofrezca. Para ello, se procurará que las personas (conferenciantes, profesores y demas profesionales) contratadas para tal objeto sean vascoparlantes.
  - A nivel escrito, en los programas, anuncios, carteles, etc. que se utilicen para divulgar dichas actividades. En dichos elementos, en caso de que el texto sea bilingüe, se dará preferencia al texto en euskera.
  - Serán en euskera las actividades que la asociación organice para niños/as y jóvenes.

- Requisitos en cuanto al género
  - Este convenio deberá cumplir obligatoriamente los criterios que en materia de género tiene aprobados el Ayuntamiento de Bergara.
  - Así pues, la perspectiva de género deberá estar presente en todas las actividades que organice San Joxepe en el centro social

- En toda la documentación utilizada (anuncios, correspondencia, memorias, etc.) se deberán aplicar los criterios de lenguaje no sexista.
- En el mismo sentido, en las memorias de las actividades desarrolladas en el Centro Social por la entidad San Joxepe, deberá incorporar información sobre el impacto de género, con indicadores y datos desagregados por sexo de las personas usuarias o beneficiarias

- Justificar ante el Ayuntamiento el cumplimiento de lo establecido en este contrato cuando sea requerido por el Ayuntamiento.

Tercera: La asociación San Joxepe podrá también prestar otros servicios a los miembros de la asociación y a las personas de la tercera edad del municipio en general, siempre que hubiera espacio para ello y con autorización expresa escrita del Ayuntamiento.

Cuarta: Los contratos que para prestar los diferentes servicios pueda realizar la Asociación no podrán tener una duración superior a la de la cesión de uso que se concreta en este documento.

Quinta: El Ayuntamiento se compromete a efectuar los trabajos de limpieza y de jardinería en el exterior del centro, además de a subvencionar los gastos de suministro de los diferentes servicios (energía eléctrica, gas,...) así como los gastos para el mantenimiento y limpieza del edificio e instalaciones cedidos ( excepto la limpieza del bar con sus enseres y, wateres anexos) de conformidad con los criterios de financiación que se aprueben para cada ejercicio.

No obstante lo establecido en el punto anterior, el Ayuntamiento podrá no subvencionar los gastos que sean consecuencia de consumos o gastos desproporcionados o incontrolados, por lo que la asociación adoptará las medidas precisas para el control de los gastos.

El Ayuntamiento podrá además otorgar otras subvenciones para hacer frente a inversiones o reparaciones extraordinarias. La solicitud se deberá realizar antes de efectuar el gasto.

Estas subvenciones son compatibles con otras que el Ayuntamiento pueda conceder en base a las diferentes convocatorias que realice.

Sexta: La forma de pago de la subvención del Ayuntamiento será la siguiente:
Se ingresará a cuenta la subvención estimada para hacer frente a los gastos del primer trimestre del año y previa presentación del balance económico correspondiente al mismo se procederá al ingreso de la parte de la subvención correspondiente al siguiente trimestre, y así durante los cuatro trimestres del año. Al finalizar el año, se realizará la regularización de la subvención, de tal manera que la cantidad aportada por el Ayuntamiento nunca supere los gastos reales en los que se ha incurrido.
En caso de que en enero de cada año no esté en vigor el nuevo presupuesto, se continuará abonando a cuenta la misma subvención que el año anterior.

Séptima: El incumplimiento total o parcial por parte de la Asociación de las obligaciones que derivan de este contrato, podrá dar lugar a la resolución del contrato, con la obligación de entrega de las instalaciones cedidas sin derecho a indemnización alguna y a la devolución total o parcial de las cantidades percibidas o al abono de las cantidades de pago, así como a cualesquiera otras que se deriven de la normativa vigente. El reintegro será acorde con la gravedad del incumplimiento y será exigido de la forma recogida en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, reguladora de las Subvenciones.

Octava: El Ayuntamiento tendrá la facultad de controlar la aplicación de los bienes al fin para el que fueron cedidos así como el estado de las instalaciones y la prestación de los servicios y actividades, y adoptar en consecuencia las medidas que considere necesarias.
El Ayuntamiento no asume responsabilidad alguna por daños, sustracciones o deterioro de los materiales propiedad de la asociación o de sus miembros, o prestadores de servicios.
La Asociación San Joxepe por su parte tampoco asume responsabilidad alguna, salvo que sea consecuencia de responsabilidad civil, para lo cual contratará la póliza a la que se refiere la cláusula segunda.

Novena: La cesión del uso tendrá una duración de un año a contar desde la firma de este convenio y será prorrogable tácitamente por períodos anuales hasta completar cinco años como máximo, salvo denuncia del convenio por cualquiera de las partes con al menos tres meses de antelación antes de la finalización del año inicial o de cada prórroga.

Durante la vigencia del convenio el inventario de los bienes cedidos será actualizado cuantas veces sea necesario por acuerdo de las partes.

Décima: Este convenio tiene naturaleza jurídico-administrativa y se regirá por lo establecido en el presente documento y en lo que en ella no dispuesto, por la ley 7/1985, de Bases de Régimen Local y la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas y por las restantes normas de derecho administrativo que resulten de aplicación.

En cuanto a las subvenciones, en lo no establecido en este documento, por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, de subvenciones y restantes normas que resulten de aplicación.

Undécima: Resolución de controversias: Las dudas que pudieran surgir de la interpretación, aplicación o ejecución de las cláusulas del presente convenio serán resueltas por el Ayuntamiento. En consecuencia, para cualesquiera diferencias o controversias puedan surgir de la interpretación, aplicación y efectos del presente convenio de colaboración será competente el orden jurisdiccional de lo contencioso-administrativo. No obstante, dichas dudas previamente a ser resueltas por el Ayuntamiento, serán tratadas por la comisión de seguimiento a que se refiere la cláusula siguiente en la que se procurará llegar a un acuerdo.

Duodécima: COMISION DE SEGUIMIENTO

- Para la correcta aplicación, seguimiento, impulso y desarrollo del presente convenio de colaboración se constituye una comisión de seguimiento formada por dos representantes del Ayuntamiento y dos representantes de la asociación San Joxepe.

- Además la Comisión de seguimiento podrá contar con la presencia y asesoramiento de personal técnico y especialistas para el mejor cumplimiento de sus funciones.
- La Comisión de seguimiento asumirá, entre otras, las siguientes funciones:
* Definir con mayor detalle las obligaciones suscritas en el convenio.
*Realizar el seguimiento de la colaboración asumida por ambas partes.
* Evaluar el cumplimiento de los objetivos.
*Proponer las medidas necesarias para la mayor eficacia del convenio.
*Servir de cauce de información entre las partes firmantes del convenio.
*Explorar otras fórmulas de colaboración.
*Cuantas otras se deriven del presente convenio.
- La Comisión de seguimiento se reunirá siempre que una de las partes firmantes del convenio lo considere oportuno haciéndolo saber a la otra parte con suficiente antelación, y como mínimo cada tres meses.

Y en prueba de conformidad ambas partes, firman ante mí, la Secretaria, el contrato en triplicado ejemplar en la fecha y lugar del encabezamiento.

| | |
|---|---|
| Maria Elena Lete Garcia | Jose Ramon Eguren Diez |
| Alcaldesa de Bergara | San Joxepe Elkarteko Lehendakaria |

Bergarako Udala

San Joxepe Elkartea

## ANEXO I: INVENTARIOA

### PLANTA BAJA

**COCINA**

1 COCINA DE GAS NATURAL DE 6 FUEGOS MOD. CG1502BD

1 FREIDORA ELECTRICA FAGOR INDUSTRIAL

1 CALENTADOR MANTENIMIENTO DE COMIDAS CALIENTES

1 LAVA-VAJILLAS

1 MICRO-ONDAS

1 FRIGORIFICO INDUSTRIAL ACERO INOX. MARCA KOSKA

1 FRIGORIFICO LIEBERG

3 UNIDADES DE FREGADERO ACERO INOX.

2 ARMARIOS DE COCINA INDUSTRIALES DE ACERO INOX.

1 EQUIPO DE VAJILLA COMPLETA PARA 60 COMENSALES

3 JUEGOS DE CAZUELA 40 *15 -ALUMINIO- MUY VIEJAS

1 JUEGO DE OLLA A PRESION SIN RECAMBIO

1 JUEGO DE SARTENES -OBSOLETO-

1 BATIDORA INDUSTRIAL -SIN RECAMBIO-

1 EXTRACTOR INDUSTRIAL

1 OFFICE CON CARRO INDUSTRIAL PARA SERVIR COMIDAS

1 EXTINTOR DE 5 KG 34 B DE LA CASA BEBESA

**CAFETERIA**

2 PARAGÜEROS

1 MAQUINA DE HIELOS

2 FREGADEROS DE ACERO INOX.

2 UNIDADES DE BOTELLERO

1 MÁQUINA DE CERVEZA A PRESION

1 LAVA-VAJILLAS

20 MESAS CUADRADAS

1 MESA DOBLE

97 SILLAS DE MADERA

12 SILLAS DE PLASTICO

8 PARAGÜEROS

20 PERCHEROS DE PARED

2 PERCHEROS DE PIE

3 CUADROS

2 TALLAS DE MADERA

1 RELOJ DE PARED

## PLANTA PRIMERA

16 MESAS

58 SILLAS DE MADERA

21 SILLAS DE PLASTICO

2 PERCHEROS DE PIE

8 PERCHEROS DE PARED

2 PARAGÜEROS

1 CUADRO

1 RELOJ DE PARED

1 TELEVISOR

**SALA POLIVALENTE**

13 MESAS

60 SILLAS DE PLASTICO

4 CUADROS GRANDES

6 CUADROS PEQUEÑOS

1 PIANO

3 ARMARIOS

1 PERCHERO

## SEGUNDA PLANTA

8 MESAS

29 SILLAS DE MADERA
8 SILLAS DE PLASTICO
1 PERCHERO DE PIE
3 PERCHEROS DE PARED
2 PARAGÜEROS
3 ARMARIOS
1 TELEVISOR

**ESCALERA Y HALL**

38 CUADROS

Bergarako Udala

San Joxepe Elkartea

**ANEXO II: SERVICIO BAR COMEDOR.**

- Todos los días de apertura del centro se ofrecerá servicio de bar como máximo en el horario en que permanezca abierto el centro. También deberá ofrecerse necesariamente todos los días al menos un menú del día al mediodía que variará a lo largo de cada uno de los días de la semana y estará ajustado a las características del colectivo de la tercera edad.

- Los precios máximos que el bar podrá aplicar a las personas jubiladas o pensionistas serán fijados por el Ayuntamiento. Dichos precios máximos son los siguientes( Ver Anexo III) Estos precios podrán ser modificados por el Ayuntamiento cuando lo estime oportuno, y para su aplicación bastará con que se los comunique a la asociación San Joxepe con al menos 15 días naturales de antelación. Dicha decisión será adoptada por decreto del/la Alcalde.

- Cumplir la normativa vigente tanto a nivel fiscal, laboral, de seguridad social, así como de sanidad y horarios, quedando el Ayuntamiento exonerado de responsabilidad por incumplimiento de la misma.

- Está totalmente prohibido servir bebidas alcohólicas y tabaco a menores de 18 años.

Bergarako Udala

San Joxepe Elkartea

## ANEXO III : PRECIOS MAXIMOS DEL SERVICIO DE BAR-COMEDOR

| | | | |
|---|---|---|---|
| **BERGARAKO GIZARTE ZENTROA** | | | **CENTRO SOCIAL DE BERGARA** |
| **PREZIOEN ZERRENDA OROKORRA** | | | **LISTA DE PRECIOS GENERAL** |
| **TABERNA-JANGELA** | | | **BAR - COMEDOR** |
| **2019. URTEA** | | | **AÑO 2019** |
| | **Jubilatuak** | **Orokorra** | |
| **ARDOAK** | **Jubilados** | **General** | **V I N O S** |
| TXIKITOA | 0,40 € | 0,45 € | TXIKITO |
| TXIKITO NAPAR GORRIA | 0,90 € | 0,90 € | TXIKITO CLARETE NAVARRO |
| BOTILA HANDIA 3/4 | 1,90 € | 1,90 € | BOTELLA GRANDE 3/4 |
| SAGARDO TXIKITOA | 0,85 € | 0,85 € | TXIKITO SIDRA |
| RIOJA TXIKITOA | 0,85 € | 0,90 € | TXIKITO RIOJA |
| MEDRANO TINTOA | 0,90 € | 0,90 € | TINTO MEDRANO |
| RIOJA 3/4 BOTILA | 5,00 € | 5,00 € | BOTELLA RIOJA 3/4 |
| KRIANTZA ARDOA ( PUERTA VIEJA) | 1,20 € | 1,35 € | VINO CRIANZA (PUERTA VIEJA ) |
| KRIANTZA ARDOA ( BAROJA ) | 1,50 € | 1,50 € | VINO CRIANZA ( BAROJA ) |
| KRIANTZA ARDOA ( MARQUES DEL PUERTO | 1,50 € | 1,50 € | VINO CRIANZA ( MARQUES DEL PUERTO ) |
| TXIKITOA RUEDA | 0,85 € | 0,90 € | TXIKITO RUEDA |
| TXIKITO ZURIA RIOJA | 1,00 € | 1,00 € | TºXIKITO BLANCO RIOJA |
| TXAKOLINA | 1,50 € | 1,50 € | TXAKOLIN |
| MUZTIO TXIKITOA | 0,45 € | 0,45 € | TXIKITO MOSTO |
| SAGAR TXIKITOA | 0,45 € | 0,45 € | TXIKITO MANZANA |
| SAGARDO BOTILA | 2,55 € | 3,70 € | BOTELLA SIDRA |
| TXANPAINA - CASTEL D'ORDAL | 5,00 € | 5,50 € | CHAMPAGNE - CASTEL D'ORDAL |
| BOTILA RUEDA | 4,50 € | 5,00 € | BOTELLA RUEDA |
| KRIANTZA ARDO BOTILA | 8,00 € | 8,00 € | BOTELLA CRIANZA |
| BOTILA ZURIA RIOJA | 8,00 € | 8,00 € | BOTELLA BLANCO RIOJA |

Bergarako Udala

San Joxepe Elkartea

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **FRESKAGARRIAK** | | | | **R E F R E S C O S** |
| ZURITOA | | 0,95 € | 1,00 € | ZURITO |
| KAÑA | | 1,45 € | 1,75 € | CAÑA |
| GARAGARDO ALKOHOL GABEA | | 1,45 € | 1,75 € | CERVEZA SIN ALCOHOL |
| FRESKAGARRIAK | | 1,45 € | 1,75 € | REFRESCOS |
| UR BOTILA TXIKIA 1/4 | | 0,75 € | 1,05 € | AGUA MINERAL PEQUEÑA 1/4 |
| ZUKUAK | | 1,40 € | 1,70 € | ZUMOS |
| GASEOSA | | 1,15 € | 1,15 € | GASEOSA |
| UR BOTILA HAUNDIA | | 1,70 € | 2,10 € | BOTELLA GRANDE AGUA |
| | | | | |
| **KAFEAK** | | | | **C A F E S** |
| KAFEA | | 1,05 € | 1,20 € | CAFÉ |
| KAFE EBAKIA | | 1,05 € | 1,20 € | CAFÉ CORTADO |
| KAFESNEA | | 1,10 € | 1,25 € | CAFÉ CON LECHE |
| DESKAFEINATUA | | 1,10 € | 1,25 € | DESCAFEINADO |
| INFUSIOAK | | 0,85 € | 1,05 € | INFUSIONES |
| BASO ESNEA, HANDIA | | 0,85 € | 0,85 € | VASO GRANDE LECHE |
| BASO ESNEA, TXIKIA | | 0,60 € | 0,60 € | VASO PEQUEÑO LECHE |
| TXOKOLATEA | | 1,55 € | 1,70 € | TAZA DE CHOCOLATE |
| | | | | |
| **APERITIBOAK** | | | | **A P E R I T I V O S** |
| VERMOUTHA | | 1,70 € | 2,00 € | VERMOUTH |
| MARIANITOA | | 1,15 € | 1,60 € | MARIANITO |
| BITTER ALKOHOL GABEA | | 1,60 € | 2,00 € | BITTER SIN |
| BITTERRA | | 1,60 € | 2,00 € | BITTER CON |
| | | | | |
| **LIKOREAK** | | | | **L I C O R E S** |
| GINEBRA | | 1,60 € | 1,80 € | GINEBRA |
| PONTXEA | | 1,55 € | 1,80 € | PONCHE |
| ANISA, PATXARANA | | 1,55 € | 1,80 € | ANIS, PATXARAN |
| RONA | | 1,55 € | 1,55 € | RON |

Bergarako Udala

San Joxepe Elkartea

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **KONBINATUAK** | | | | | **COMBINADOS** |
| KUBA LIBREA | | 2,95 € | 3,40 € | | CUBA LIBRE |
| GIN TONIKA | | 2,95 € | 3,40 € | | GIN TONIC |
| KARAJILLOA | | 1,60 € | 2,00 € | | CARAJILLO |
| KALIMOTXOA | | 1,70 € | 2,20 € | | KALIMOTXO |
| | | | | | |
| **MENUAK** | | | | | **MENUS** |
| EGUNEKO MENUA | | 7,75 € | 8,90 € | | MENÚ DEL DÍA |
| KAZOLATXOAK | | 3,70 € | 4,25 € | | CAZUELITAS |
| SALDA | | 1,10 € | 1,25 € | | CALDO |
| KAZOLATXOA MUTURRAK | | 4,00 € | 4,50 € | | CAZUELITAS DE MORROS |
| | | | | | |
| **TXITXIZOTZAK** | | | | | **BANDERILLAS** |
| PATATA-TORTILLA | | 1,25 € | 1,40 € | | TORTILLA DE PATATAS |
| KROKETAK | | 1,50 € | 1,60 € | | CROQUETAS |
| TXORIZOA | | 1,25 € | 1,40 € | | CHORIZO |
| ODOLOSTEA | | 1,25 € | 1,40 € | | MORCILLA |
| ARRAINA | | 1,25 € | 1,40 € | | PESCADO |
| GAZTA | | 1,25 € | 1,40 € | | QUESO |
| AZEITUNAK | | 1,25 € | 1,40 € | | ACEITUNAS |
| | | | | | |
| **OTARTEKOAK** | | | | | **BOCADILLOS** |
| SOLOMOA | | 2,45 € | 2,90 € | | LOMO |
| BOKATA ERDI | | 1,60 € | 1,70 € | | MEDIO BOKATA |
| URDAIAZPIKOA | | 2,45 € | 2,90 € | | JAMÓN |
| GAZTA | | 2,45 € | 2,90 € | | QUESO |
| TXORIZOA | | 2,45 € | 2,90 € | | CHORIZO |
| TXORIZO-TORTILLA | | 2,45 € | 2,90 € | | TORTILLA CHORIZO |
| GAZTA-TORTILLA | | 2,45 € | 2,90 € | | TORTILLA QUESO |
| URDAIAZPIKO-TORTILLA | | 2,45 € | 2,90 € | | TORTILLA JAMÓN |
| PATATA-TORTILLA | | 2,45 € | 2,90 € | | TORTILLA PATATA |

Bergarako Udala

San Joxepe Elkartea

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| TORTILLA HUTSA | | 2,10 € | 2,75 € | | TORTILLA FRANCESA |
| | | | | | |
| **WHISKYAK** | | | | | **WHISKYS** |
| ESKOZIARRA | | 3,40 € | 3,80 € | | ESCOCES |
| WHISKY ESKOZIARRA, KOPA 1/2 | | 2,10 € | 2,65 € | | 1/2 COPA WHISKY ESCOCES |
| | | | | | |
| **KOÑAKAK** | | | | | **COGNACS** |
| SOBERANO | | 1,60 € | 1,90 € | | SOBERANO |
| INSUPERABLE | | 2,10 € | 2,65 € | | INSUPERABLE |
| CARLOS III, MAGNO, KOPA 1/2 | | 1,45 € | 2,05 € | | 1/2 COPA CARLOS III, MAGNO |
| CARLOS III | | 2,00 € | 2,65 € | | CARLOS III |
| MAGNO | | 2,00 € | 2,65 € | | MAGNO |
| BESTE LIKOREAK KOPA 1/2 | | 1,10 € | 1,55 € | | 1/2 COPA OTROS LICORES |
| | | | | | |
| **OPILAK** | | | | | **BOLLERÍA** |
| BIZKOTXOA | | 1,15 € | 1,25 € | | BIZCOCHO |
| | | | | | |
| **ASKOTARIKOAK** | | | | | **VARIOS** |
| ALMENDRAK, KAKAHUETEAK | | 0,95 € | 0,95 € | | ALMENDRAS, CACAHUETES |
| TARTAK RAZIOA | | 1,40 € | 1,50 € | | RACION DE TARTA |
| EZTIZKO KARAMELUAK | | 1,20 € | 1,20 € | | CARAMELOS DE MIEL |
| MENTAZKO KARAMELUAK | | 1,20 € | 1,20 € | | CARAMELOS DE MENTA |
| IZOTZA | | 1,20 € | 1,20 € | | HELADO |
| PATATA FRIJITUAK | | 1,00 € | 1,00 € | | PATATAS FRITAS |
| KARAMELOAK MENTOL LEGALIZ-a | | 1,50 € | 1,50 € | | CARAMELO MENTOL REGALIZ |
| TXIKLEAK - MARRUBIA ETA MENTA | | 1,00 € | 1,00 € | | CHICLES - FRESA Y MENTA |
| | | | | | |

Oharra: Zerrenda honetan eskuz jarritako aldaketak ez dira baliagarriak.

Nota: Las inscripciones realizadas a mano en este listado no son válidas.